

Iñaki Mendiguren

Itzali infernuak!

V

all d'Hebrongo bortxatzailearen kasuak eta antzekoek zer pentsa ematen dute. 16 sexu-eraso, 311 urteko espetxe-zigorra, 16 urte bete... eta irten behar duenean, eskandalua hedabideetan... baita gizartean ere (berez edo nahita eraginda sortu den, beste kontu bat da). Zer pentsa ematen du nolako errazkeriaz jende “zetzudun eta ikasi” ustekoek botatzen dizuten lasai asko: “Horrelako jendea ez da inoiz aldatzen. Horrek berriro egingo du lehen egin zuena. Horiek bizitza osoa kartzelan eman behar dute”. Eta bestelako argudio edo jarrerarik sumatzen badizute, azkar entzungo duzu: “Berdin pentsatuko ote zenuke ama, emaztea edo arreba bortxatu balizute?”.

Sexu-krimenetan –are gehiago haurrak eta odola tartean direnean– oso erraz nahasten zaizkigu triapak, eta horretaz ongi baliatzen da zenbait agintari, on eta gaiztoz osaturiko gizarte-sistema manikeoak gogoko dituzten horietakoak. Eta morboak asko saltzen duela jakinda, erraz aurkituko dute “esku gogorraren” aldeko prentsa mota bat; baina, hara!, krimen horietantxe eta beste pare batean bakarrik (adb., terrorismoa: zer arraio ote da hori?). Garai batean gure kaleetan zabaldu ziren mezu haiek –*Contra violación, castración*– orain apur bat findu egin dira: “Bortxaketaren kontra, irentze kimikoa”.

Biktimentzako errespeturik handienaz esanda, heriotza-zigorra edo bizi arteko espetxe-zigorra eta antzekoak, justiziaren mozturropean, mendeku eta arrangurazko sistema antzu eta porrot eginak baino ez dira. Esan gabe doa lehentasuna biktimak behar lukeela, egin dioten kaltea konpontzeko posible den laguntza guztia. Biktimari gerta dakiokkeen okerrena bizitza osoan biktima izaten jarraitzea da: gau eta egun gaizkilearen aurkako mendekua hausnartzen egotea, gorrotza bere bizitzaren zentzu bihurtzea, egin dioten mina gainditzeko gai ez izatea. Beraz, biktimari



DANI BLANCO

laguntzea da gizartearen lehen egin beharra, horretan dudarik ez.

Baina biktimak lehentasuna duen arrazoi beragatik –giza duintasunagatik, alegia–, gaizkileak errehabilitatzeko itxaropena, aukera eta baliabideak behar lituzke beti, beti. Baita krimenik handien eginleak ere. Gertatzen da oso herrialde gutxitan dagoela oraindik gaizkilea “osatzera” zuzenduta justizia. Gaizkilea nekez hartzen da senda daitekeen gaixotzat (estatista edo politikari ahaltsua bada, eginak egin, saiatuko da gobernari eraginkor gisa agertzen; soldadua bada, langile ordaindu edo heroitzat. “Galtzaileak” bakarrik usteltzen dira espetxean). Dena den, askoz inbertsio handiagoak egingo bagenitu gizakiaren buru-osasun edo ongizate psikikoan, asko aurreztuko genuke erreformatario, polizia, auzitegi eta espetxeetan; sufrimendu, energia eta

dirutza handiak aurreztuko genituzke! Ez dago justiziarik, zuzentasunaren arabera, zigorrik, errehabilitatzeko aukerarik gabe.

Eta horren haritik, ustedut kristau-teologiak baduela kontraesan edo aberrazio handi samar bat, onik egiten ez diona. Demagun gizakiak kontzientzia osoz eta maltzurkeriarik handienaz (eta asko suposatzea da, e!) egundoko izugarrikeriak –“bekatu mortalak”, alegia– egiten dituela. Zenbat urtez? Gehienez ere 40-50 urtez?...

Bidezkoa al da ordainetan betiereko kondena jasatea,

inoiz atzera buelta edo errehabilitatzeko aukerarik ez duena? “Infernuak” deitu izan den egoera horretan ez dagoela itzulbiderik sekula santan? Tira, tira, espekulazio teologikora emandako horiek asma deza-tela beste zerbait maitasun den Jainkoarekin bateragarriagoa dena. Bitartean saia gaitezen infernu guztiak itzaltzen; eta badaezpada ere, heriotza osteko eternoaz gehiegi kezkatu ordez, has gaitezen “orain eta hemen” hain errealak diren beste infernutxoak itzaltzen! ■

Askoz inbertsio handiagoak egingo bagenitu
gizakiaren buru-osasun edo ongizate psikikoan,
asko aurreztuko genuke erreformatario, polizia,
auzitegi eta espetxeetan; sufrimendu, energia
eta dirutza handiak aurreztuko genituzke!
Ez dago justiziarik, zuzentasunaren arabera
zigorrik, errehabilitatzeko aukerarik gabe